



ETHNO
PÔLE

KOLOKIOA

PROGRAMA

**AMANKOMUNAK:
BALIABIDE PARTEKATUAK.
ZER NOLAKO ERRONKAK
LURRALDEARENTZAT?**

Ipar Euskal Herriko goi mailako arte eskola

Amphi 100

Baiona

2023 | EKAINAREN 22 ETA 23A



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL
BASQUE



BASQUE ANTHROPOLOGICAL
RESEARCH INSTITUTE
on Music, Emotion and Human Societies



UMR 5319
Passages





Amankomunak edo komunak aipatzean, baliabideetaz ari gara, eta hauen babesteko, egonkortzeko, komunitate batek finkatzen dituen araudietaz eta gobernantza bereziaz. Ez baldin badira horrela deituak ere, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo, amankomunak denetan dira: ekonomian, ekologian, etxebizitzan, kulturen, jakitateen arloan etabar.

"Amankomunak: baliabide partekatuak. Zer nolako erronkak Euskal Herriarentzat?" galderatik abiatuz, amankomunen ezaugarriak, deklinabide praktikoak eta erronkak argitan emanen dira.

Amankomunak eta jabetza

Elinor Ostrom ekonomistaren lanek erakusten diguten bezala, amankomunek jabetzaren konzeptua galdezkatzen dute. Baliabideen eskuragarritasuna aldarrikatzen dute, erabilpenarako eta sinbolikoki duten balioa aitzinean emanez, eta jabetza forma berriak proposatuz. Zuzenbidearen begiradak eta amankomun esperientzia batzuek, problematika honi, perspektiba zabalagoa ekarriko diote.

Amankomunak eta gobernantza

Baliabide material edo immaterialen kudeatzeko sortu gobernantza bereziek, pertsonen gaitasunak eta politika antolakuntza eredu bereziak agerian ezartzen dituzte. Horretarako, jardunaldietan, hainbat ekimen kolektibo aurkeztuko dira, ekonomiarekiko, etxebizitzarekiko, lurrarekiko eta instituzioarekiko harremana beste manera batez bideratzen dutenak.

Amankomunak eta komunitatea

Amankomunetan jokoan den beste elementua, komunitatea da. Ohargarria da nola hau sortzen, hazten, antolatzen den baliabide komun baten inguruan, izan dadin hizkuntza kultura edo bertze. Zer nolako tresna alternatiboak sortzen ditu komunitateak? Nola uztartzen dira hor nortasun indibiduala eta kolektiboa?

Kolokioak arlo desberdinen arteko elgarriketa bultzatuko du, ekarpen teorikoak eta adibide konkrituak gurutzatuz.

N.B.: Mintzaldi guztiak euskarara edo frantsesera itzuliak izanen dira.

Jatorrizko hizkuntza pastilla batekin seinalatua da.

EKAINAK 22, OSTEGUNA

08:45 Harrera Ipar Euskal Herriko goi mailako arte eskolan (ESAPB)

09:00 Lehen agurra: ESAPB, Euskal kultur erakundea eta Passages laborategia

9:15

12:30

AMANKOMUNAK ETA JABETZA

Moderatzailea: Iban LARRANDABURU, zuzenbide publikoan doktoregaia (EHU/Lorraineko unibertsitatea) eta Pirinio-Atlantikoetako departamenduan misio karguduna

FR

09:15 Amankomunak, ontasun amankomunak: zertaz ari gara? - Benjamin CORIAT

Irakasle emeritua, Sorbonne Paris Nord unibertsitatea

FR

09:50 Amankomunak, zuzenbidearen ikuspegitik - Marie CORNU

CNRS-eko ikerketa zuzendaria, Politikaren zientzia sozialen institutua, Paris Saclay goi mailako eskola/Paris Nanterre unibertsitatea

10:15 Publikoarekin trukaketa

10:30 Atsedena

EU

11:00 Euskal Herria, Komunalen Herria - Xabi LARRALDE

Ekonomian doktorea – Etxepare Lizeoan erakaslea

FR

11:25 Amankomunak, euskal antolaketa sozial eta kulturalaren adierazle? Isabelle BAGDASSARIAN

Lurralde funtzionarioa, geografian doktorea

11:50 Publikoarekin trukaketa

12:30 Atsedena

EKAINAK 22, OSTEGUNA

14:00
18:00

AMANKOMUNAK ETA GOBERNANTZA

Moderatzailea: Elena CASIRIAIN, antropologiako doktoregaia (Euskal Herriko Unibertsitatea/Tolosako Jean Jaurès Unibertsitatea) eta Euskal Herriko Garapen Kontseiluan misio karguduna

FR

14:00 Jakitateak ko-ekoiztu, kudeantza kolektiboaren zerbitzurako

Meredith WELCH-DEVINE Irakasle agregatua antropologian, Georgiako unibertsitatea

EU

14:25 Euskoa eta tokiko monetak, tresna amankomunak sortzen - Xebax CHRISTY

Euskal Moneta elkartearen lehendakaria

FR

14:50 Amankomunaz arta hartu - Isabel CAPDEVILLE

Lurzaindiako administralaria

15:15 Publikoarekin trukaketa

15:45 Atsedena

16:00

MAHAIN INGURUA: AMANKOMUNAK, BESTE GOBERNANTZA MOTA BAT?

Mahain inguruaren animatzailea: Xole MARILUZ, Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiko kidea, ZESeko irakaslea

FR

Politika publikoak eta antolamendu autokudeatuak - Nicole ETXAMENDI

Euskal Hirigune Elkargoko Kontseilaria, Itsasu

EU

Teknologia burujabetza eta amankomun berriak - Gorka JULIO

Informatikaria, Talaios kooperatibako kidea.

FR

Etxebizitza: amankomunak merkatuaren legearen aurka - Txetx ETCHEVERRY

ALDA elkarreko administrazio kontseiluko kidea

EU

Herritarrekin, burujabetza energetikoaren alde - Patxi BERGARA

ENARGIA-ko zuzendaria, IENER-eko lehendakaria

17:30 Publikoarekin trukaketa

18:30
19:30

Amankomunak Baionako euskal museoan - bisita gidatua

FR

Sabine CAZENAVE -Baionako euskal museoko zuzendaria

Claire LOHIAGUE - Baionako euskal museoko publikoen zerbitzua

EKAINAK 23, OSTIRALA

09:00 Harrera Ipar Euskal Herriko goi mailako arte eskolan (ESAPB)

09:15
12:30

AMANKOMUNAK ETA KOMUNITATEAK

Moderatzailea: Marie-Andrée OURET, Baionako mediateka, BILKETA

EU

09:15 Hizkuntza komun-itateak - Txerra RODRIGUEZ GOMEZ

Hizkuntza aholkularia Emun kooperatiban, soziolinguistikan doktorea

EU

9:40 Wikipedia kultur edukiekin indartzeko aukerak eta lizentzia libreak

Galder GONZALEZ Proiektu arduraduna Euskal Wikilarien Kultur Elkarteak

Kepa SARASOLA Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) eta Udako Euskal Unibertsitatean (UEU)

FR

10:05 Euskal kultura eta ondarea OpenStreetMap-etik ikusita: kartografia eta datu basearen arteko komun numerikoa

Marina DUFEAL irakasle-ikerlaria, Bordeaux Montaigne unibertsitatea/Passages laborategia

Vincent BERGEOT Teritorio-ko zuzendari orokorra

10:30 Trukaketa publikoarekin

10:45 Atsedena

11:00
12:00

SOLASALDIA: KOMUNITATEA, KULTURA FABRIKEN ERDIGUNEAN

Animatzailea: Aitzpea LEIZAOLA, antropologoa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea (EHU)

FR

Kultur aferen kudeaketa amankomun baterantz lurralde batean? Bordaleko Pola fabrikaren kasua - Clémence FAVRAU

Bordeaux-Montaigne unibertsitateko doktoregaia

EU

ASTRA Gernika - Hiba AGORRIA MUNITIS

Astrako bitartekaria

12:00 Kolokioaren bilana Benjamin CORIAT-en eskutik

12:30 Kolokioaren itxiera

Informazioak

Euskal Kultur Erakundea

Lota Jauregia

64 480 UZTARITZE

www.eke.eus | www.etnopoloa.eus

0 (033) 5 59 93 38 74

info@eke.eus

Urririk

<http://2023.etnopoloa.eus>

Antolatzaileak



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE



BASQUE ANTHROPOLOGICAL
RESEARCH INSTITUTE
on Music, Emotion and Human Societies



UMR 5319
Passages



Partaideak

